

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE
GOSEAREN AURKAKO KANPAINA



III. kanpaina



2011 ko
memoria



Aurkezpena	3
Nor gara?	4
Zer egiten dugu?	8
1.- Sentsibilizazioa	9
2.- Garapen-proiektuak	11
Zergatik egiten dugu?	16
Gure kontuak	18
Eskerrak	22
Manos Unidas	
erakundearen ordezkariak	23

Memoria hau Manos Unidas erakundeko Komunikazio Sailak egin du.

Argazkiak: Soledad García, M^o Eugenia Díaz, Javier Cuadrado, Javier Fernández, Marta Carreño, Irene H-Sanjuán, Laura Gutiérrez eta Casilda de Zulueta.

Itzulpena: "GARLO"





Irakurle estimatua: Manos Unidas erakundearen 2011ko Memoria daukazu eskuartean, eta gure erakundeak burututako sentiberatasun jardueri buruzko informazio aipagarrienak, hainbat herrialdek finantzatutako garapen proiektuak, diru-sarrerak eta gastuak aurkituko dituzu bertan, erakunde gisa ezaugarritzatzen gaituzten oharrekin batera.

Manos Unidasen, bosgarren urtez jarraian, Milurtekoaren Garapen Helburuetan oinarrituta dihardugu lanean. Oraingo honetan, eta "Geroa gaur jokoan" kanpainarekin, hauxe gogorarazi nahi diogu gure gizarteari: 5 urtetik beherako 29.000 haur inguru hiltzen direla egunero saihestu daitezkeen kausengatik, hala nola, elikadura okerra, malaria, tuberkulosia, pneumonia, beherakoa, deshidratazioa, higienarik eza eta abarregatik. Erakundeek, gobernuek eta hiritarrok dugu haur hauen egoera hobetu dadin inplikatzeko erantzukizuna. Manos Unidas erakundea hunkitu egiten da, Jesus egin zen bezala, haur eta errugabeen sufrimenduaren aurrean, eta pobrezia eta gosearen ondorioz ematen den haur heriotza-tasaren aurka borrokatzen du atergabe.

Baina gosearen aurkako borrokan, gertaerek euren erritmoa ezartzen dute. Hala, 2011ko udaberrian Afrikako Adarrean zegoen gosetearen berri izan genuen. Manos Unidas erakundean lan egiten dugunontzat berri tamalgarria izan zen. Beti bezala, gehien behar duten pertsonen lagundu diegu, nahiz eta jakin badakigun hango egoerak egitasmo handiago bat egitea eskatzen duela, alde aurretik prebenitu eta egoera berriro errepika ez dadin.

Horrekin batera, behartsuenei bereziki erasaten dien krisi ekonomiko eta finantzarioa areagotzen eta okertzen zihoan, gobernuek Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratu beharreko dirua murrizten hasi zirelako. Arlo honetan konpromisoak ez dira bete espero zen neurrian, eta aurrera begira aurreikuspenak ez dira onak.

Murrizketa honen ondorioz, gure erakundean nabarmen gutxitu dira jatorri publikoko diru-sarrerak. Aldiz, jatorri pribatuko funtsak, hots, guztizkoaren % 82 osatzen dutenak, ia-ia lehengoan mantentzen dira. Gure bazkideek eta laguntzaileek Manos Unidasen duten konfiantza hau altxor bat da guretzat, eta erantzukizun itzela izanik, aurreikuspen sendoekin lan egiteko aukera ematen digu.

Milesker guztioi konpromiso honi eusteagatik. Badakigu eta nabari dugu bakarrik ez gaudela, eta, garrantzitsuenak, gure senide behartsuenei laguntzen jarrai dezakegula. Gure eguneroko lanarekin erantzun nahi diegu adierazpen hauei, gure ezaugarriak mantenduz, neurritasuna eta gardentasuna bezalako balioak zainduz, eta gure erakundearen helburutik arreta desbideratu gabe: behartsuenak, gosearen aurkako borroka eta hau eragiten duten kausak. Pobrezia larria dagoen bitartean, "guztion lurra" egiaz dei daitezkeen mundua eraikitzeko lanean jarraituko dugu.

Myriam García Abrisqueta
Presidentea



nor gara?



Manos Unidas Espainiako Eliza Katolikoaren baitako Elkartea da Hirugarren Munduaren sustapenerako eta garapenerako sorturikoa.

Aldi berean, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) katolikoa eta sekularra da, boluntarioz osatua.

Gure egitekoa da gosearen, nutrizio eskasaren, miseriaren, gaixotasunen, azpigarapenaren eta hezkuntzarik ezaren aurka borrokatzea, baita horiek guztiek eragiten dituzten arrazoiei aurre egitea ere: bidegabekeria, pertsonen eta herrien arteko ondasun eta aukeren banaketa desberdina, ezjakintasuna, aurreiritziak, elkartasunik eza, axolagabekeria eta giza eta kristau balioen krisia (Estatutuak, 5. art).



gure sorrera

Hara, 1955eko uztailaren 2an, bost kontinenteetako ehun erakunde baino gehiago biltzen zituen Unión Mundial de Organizaciones Feministas Católicas (UMOFC) zelakoak Manifestu bat kaleratu zuen, non "gerra goseari" deklaratu zioten. Bere oihartzuna itzela izan zen, eta berehala hainbat herrialdetan ekintza ezberdinak sustatu ziren. Estatutan, 1959an antolatu zen Gosearen aurkako lehenengo Kanpaina *Mujeres de Acción Católica* elkartearen eskutik.

1970. urteaz geroztik, otsaileko bigarren igandean burutzen du Manos Unidas erakundeak bere Ospakizun Orokorra Espainiako Apezpikuen Konferentziaren ekimenez: Estatu osoko parroketan biltzen den dirua gure erakundearentzat izan ohi da.

Aurreko ostiralean, Borondatezko Barau Eguna egiten da Estatu osoan, egunero derrigorrez barau egiten duten milioika pertsonetikiko elkartasunez.

orderkaritzak

Manos Unidasek elizbarrutiko egitura du. Nazio mailan ezarria dago, eta elizbarruti ezberdinetako 70 ordezkari ditu. Hasieratik, Ordezkaritzen egitekoa argia izan da: munduan dagoen gosearen arazoei buruz herritar guztiak sentsibilizatzea eta Manos Unidasen ekintza aurrera eramateko aukera ematen duten diru-bilketa egitea. Elizbarrutiko egitura aberastasun itzela da erakundearentzako, lurralde osoan banatuta dagoelako eta jarduera anitz garatzen dituztelako.

giza kapitala

Manos Unidas, boluntarioen erakunde bat da definizioz. Boluntarioritza bizi-hautapen bat da, eta beharrezko ereduak doakotasunaren eta partekatzearen balioan oinarritutako kontzientzia sortzeko. Eta ezaugarri hau 2011. urtean zehar etengabe lanean jardun duten 4.804 boluntarioengan zertzen da. Gainera, eta gure Estatutuen arabera, boluntarioek osatzen dituzte gure gobernu organoak. Baina horiekin batera, badira kontratupean diharduten langile gutxi batzuk ere, eta hauek, erakundearen lana burutu ahal izateko, Manos Unidasen printzipioak eta irizpideak mantenduz eta errespetatuz betiere, aurrekoengandik bereizi ezinezko pieza dira.

bazkideak eta laguntzaileak

Manos Unidas erakundeak bere bazkideen attergabeko laguntza leiala jasotzen du, eta horien ekarpen ekonomikoak dira erakundearen diru-sarreraren zatirik garrantzitsuena. Esaterako, 2011an 90.515 lagunek lagundu ziguten euren dohaintzekin.

Gainera, Manos Unidasek kanpoko laguntzaile anitz ditu noizean behin euren zerbitzu profesionalak eta aholkularitza dohain eskaintzen dizkietenak, esan nahi baita zuzenbide, ekonomia, iragarki etab. bezalako gaietan.

Horiei guztiei esker
burutzen du
Manos Unidasek bere lana.



Meza Madrilgo Almudena katedralean, Manos Unidasen Ospakizun Orokorren egunean.




Ordezkarien Batzar Nazionala Escorialen.



Ordezkaritza bateko boluntarioek burututako "Bokata Operazioa"



Gazteak Cadena 100 irratiaren Kontzertuan eskuorriak banatzen.



Manos Unidas erakundearen proiektu baten alde eskaintako antzezlanak.



kanpo harremanak

Mundu globalizatu batean bizi gara, non pertsona, herrialde eta kontinente arteko harremanak beharrezkoak eta aberasgarriak diren. Manos Unidas nazioarteko eta estatuko hainbat erakunde-etako kide da:

- **Consejo Pontificio Cor Unum**, herrien garapena eta laguntza sustatzera bideraturiko instituzio katolikoek ekimenak koordinatzen dituen Vatikanoko erakundea.
- **CIDSE**, Garapenaren eta Elkartasunaren aldeko Nazioarteko Elkarlana, Europako eta Ipar Amerikako 16 erakunde katoliko barne hartzen dituen sarea.
- **CONCORD**, Garapenerako Elkarlanean eta Larrialdiko Laguntzan diharduten Erakundeek Konfederazioa; Europako 1.600 erakundek baino gehiagok osatzen dute.
- **CONGDE, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundea**, nazioarteko elkarlanean diharduten erakunde kide eta koordinatzaileek osatua.
- **Fundación Sur**, erakunde independentea eta irabazi asmorik gabea, gizartea sentsibilizatzea eta txirotutako herrialdeen azterketa egitea bultzatzen ditu.
- **Pobrezia aurkako Itun Globala**, Gobernu Kanpoko Erakundeetako 20 koordinakunde autonomiko eta erregionalen elkargunea, baita lankidetzak-kontseilu eta koordinakunde desberdinen lan-taldeena ere.
- **Laikoen foroa**, Espainiako elkarte katolikoek koordinazio bidea.
- **Misioen Kontseilu Nazionala**, Espainiako misioetako koordinazio-organoa.
- **Espainiako Boluntariotzaren Plataforma.**
- **Espainiako Fundraising Elkarte.**



“Boluntariotzaren Europako Urtea” Asturiasko Printzeak buru direla.

erakundearen organigrama

Gobernu-organoak

Batzar Nagusia

Batzar Nagusia da Manos Unidas erakundeko gobernu-organo gorena. Batzordeko kideak urtean bi aldiz elkartzen dira.

Presidentea

Elizbarrutietako egoitzetako
70 Presidente-Ordezkarik

Zerbitzu Zentraletako
ordezkari bat

Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra Batzar Nagusiaren mendeko gobernu-organoa da eta, azken honen jarraibideak kontuan hartuz, Manos Unidas erakundearen lana zuzendu du. Batzordeko kideak hilean behin elkartzen dira.

Presidentea

Myriam García Abrisqueta

Kontseilaria

Mons. J. José Omella

Kontseilariordea

Jesús Vidal

Presidenteordea

Soledad Suárez

Idazkaria

Ángeles Díaz-Polo

Diruzaina

Tomás Rodríguez

Acción Católica elkarteko Idazk. Nag.

Ricardo Loy

Batzar Nagusiko ordezkarik
(5)

Benita Asensio

M^a Pilar Bilbao

Fco. Javier Fornell

Rosa Pradas

José Valero

Zerbitzu Zentraletako
ordezkariak (3)

Ignacio Ussía

Clara Pardo

Sonsoles Fernández-Iriondo

Zuzendaritza-organoak

Zuzendari-talde nazionala

Presidentea

Presidenteordea

Idazkaria

Diruzaina

Elizbarrutiko Zuzendari Taldea

Presidentea/
Ordezkarria

Presidenteordea/
Ordezkarria

Idazkaria

Diruzaina

Kudeaketa-organoak

Zerbitzu Zentralak

Zerbitzu zentralak erakundearen gobernu-organoek adosturiko akordioak gauzatzeko ardura duten zerbitzu teknikoak eta administratiboak dira.

Presidentea

Myriam García Abrisqueta

Zuzendaritza idazkaritza
Idazkaritza teknikoa

Idazkari Nagusia

Rafael Serrano

FINANTZA ETA PLANIFIKAZIO
KUDEAKETARAKO ARLOA

Ekonomikoa

Estrategia eta Kalitatea

BALIABIDE ETA PERTSONEN
ADMINISTRAZIORAKO ARLOA

Lan Harremanak

Zerbitzu Orokorrak

Informatika

Boluntariotza

KOMUNIKAZIORAKO ETA
PRESENTZIA PUBLIKORAKO
ARLOA

Komunikazioa

Baliabide materialak

Bazkideak

Enpresak eta Erakundeak

GARAPENERAKO ETA
SENTSIBILIZAZIORAKO
HEZKUNTZA ARLOA

Hezkuntza

Kanpainak eta Sareak

Nazioarteko Harremanak

Azterlanak eta
Dokumentazioa

Formazioa

PROIEKTUEN ARLOA

Afrika

Amerika

Asia

Kofinantzazioa

Lotura Operazioa

Teknologia Egokiak

ORDEZKARITZEN ARLOA

Iparra

Hegoa



zer egiten dugu?



Manos Unidas erakundeak elkarren osagarri diren bi arlotara zuzentzen du bere ekintza: alde batetik, **estatuko gizartea sentsibilizatzen** aritzen da, garapen bidean dauden herrialdeetako egoera ezagutu dezan; eta, bestetik, Afrikan, Amerikan, Asian eta Ozeanian **proiektuak bultzatzen eta finantzatzen ditu**, herrialde horien garapena sustatzeko.

Manos Unidasek bere **LII. Kanpaina** burutu zuen 2011. urtean, “**Geroa gaur jokoan**” goiburupean, eta **Milurteko laugarren Helburuan**, haurren hilkortasun-tasa murrizten eragin nahi izan du bereziki.

Egunero 29.000 haur hiltzen dira prebenitu ahal daitezkeen kausengatik. Haurtzaroan egin ditzakegun eskuartze goiztiar hauek guztiak erabakigarriak dira, ez haurren biziraupenerako bakarrik, baita euren hazkunde eta garapenerako ere.



Sentsibilizazioa

Kanpainaren aurkezpena

Otsailaren 10ean, osteguna, aurkeztu zen urteroko Manos Unidas erakundearen "Geroa gaur jokoan" kanpaina. Ekitaldia Madrilgo Calasancio ikastetxean ospatu zen, Inmaculada Galván kazetariaren eskutik. Halaber, erakundeko Myriam García Abrisqueta presidenteak eta, Beninen haur behartsuenekin 15 urte lanean daramatzan María Damaris kaputxina hirugarrendarrak ere hartu zuten parte. Madrilgo Erkidegoko Haur eta Gazteen abesbatzarekin amaitu zen ekitaldia.

Manos Unidasen X. foroa

Apirilean burutu zen Manos Unidasen hamargarren edizioa Ciudad Realen, Gaztela-Mantxako Unibertsitatean. Eta "Haurrak bizitza biologikoa baino haratago zaintzeko erantzukizuna" goiburuan oinarritu zen inaugurazioko hitzaldia. Ondoren, esperientzien tauletan, haurren hilkortasun tasan eragiten duten alderdi ezberdinak planteatu ziren, esan nahi baita ura izatea, higiena eta elikadura, formazioaren eta osasunaren garrantzia azpimarratuz, Manos Unidas erakundeak proiektuen bitartez bultzatzen dituen konponbideak bezalaxe. Berrikuntza gisa, *Haurtzaro osasuntsuaren eskabidea* deitu ekitaldia antolatu zen, non Toledoko ikastetxe bateko haur talde batek parte hartu zuen eta ikus-entzunezko bat proiektatu zen.

Lotura operazioa

Jarduera hau, gure proiektuetakoren batekin estatuko gizartea pertsona partikularrekin edo taldeekin harremanetan jartzera bideratua egonik, ordezkartzetan gauzatzen da bereziki. Horrekin Hegoaldeko herrialdeekiko sentsibilizazio eta konpromiso handiagoa lortu nahi du, laguntzen dioten haien egoera eta bizi baldintzak ezagutzera ematen dituzten txostenen bitartez. Gainera, proiektu horiek finantzatzera bideratutako dirua bildu nahi du, eta guztia biltzea lortzen ez bada ere, Manos Unidasek proiektua burutuko dela bermatzen du. Esaterako, 2011. urtean, Manos Unidasek orotara eskatutako 21.566.284,17 euroko zenbatekoaren 602 lotura operazio egin zituen.

garapenerako hezkuntza

Hegoaren errealitateari buruz estatuko populazioa sentsibilizatzea da Garapenerako Hezkuntza arloak duen jomuga. Manos Unidas erakundeko Hezkuntza Saila da estatuko ikastetxeetara bideraturiko hezkuntza-materialak prestatzeko arduraduna. Material hauek Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako egiten dira urtero; guztia hainbat jarduera, baliabide eta dokumentazioz osaturiko karpeta baten barruan -maila bakoitzerako bat, desberdina. Material hauez gain, aipaturiko Sailak irakasleei zuzendutako ikastaro ugari antolatu eta eskaintzen ditu, baita hezkuntza formal eta ez-formal, on-line eta aurrez aurreko hezkuntza zehatzetako kolektiboei eskaintako hainbat tailer ere. Kanpainen arloak, halaber, honako sentsibilizazio lan hau bultzatzen du kanpaina ezberdinen bitartez. Hala, 2011an, RE-DESekin burututako "Afrika, bizi-arazoa, zor-arazoa" Kanpaina aurkeztu zen. Gainera, Manos Unidas eta AECID (Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarrak) lau urterako eginiko lankidetzaren itunaren ondorioz, 2011-2012 III. klip filmen Lehiaketa jarri da abian, hots, "Afrika, bizi-arazoa, zor-arazoa" kanpainari buruzko minutu bateko iraupena duten film laburrak. Honako web orri hau sortu da aipatu lehiaketarako: www.clipmetrajesmanosunidas.org.



Kanpainaren aurkezpena Madrilgo Mutua Madrileñaren egoitzan.



Manos Unidas erakundearen Foroa. Ciudad Real.



Foroan izandako "Haurtzaro osasuntsuaren eskabidea" ekitaldia.



Lotura Operazioentzat funtsak lortzeko helburuarekin burututako "Lasterketa Solidarioa".



Klip filmen lehiaketako eta "Afrika, bizi-arazoa, zor-arazoa" kanpainako kartelak. 2011/2012 kanpainarako, Lehen Hezkuntzako hezkuntza-materiala





Manos Unidasen proiektuak bisitatzeko kazetariekin Haitira egindako bidaia.



Manos Unidas 2011 lehiaketako saridunak eta babesleak.



Argazkien eta azalpenen taulak, erakusketako gidarekin batera

komunikazioa

Manos Unidasek prestatzen dituen komunikazio ekintzen helburua erakundearen Espainiako gizartean eta komunikabideetan ikusaraztea da, ahalik eta jende gehienak izan dezan gure mezuaren eta lanaren berri. Hegoaldeko herrialdeen inguruan dugun irudia ahalik eta egiazkoena eta osoena izan dadin, Manos Unidasek informazioa zabaltzeko eta publizitatea egiteko material ugari prestatzen ditu: buletinak (paperezkoak eta elektronikoak), informazioa dakarten eskuorriak, kartelak, iragarkiak (prentsan, irratan eta telebistan), enkarteak, bideoak, agendak, egutegiak...

Kazetari talde bat Haitira joan zen erakundearen presidentearekin batera, eta garapena bultzatzeko hainbat proiektu ezagutu zituzten bertan; ondoren, han ikusitakoaren berri euren komunikabideetan eman zutelarik. Halaber, hainbat dokumental egin ziren Haitin eta Angolan Julian del Omok zuzentzen duen TVEko "Pueblo de Dios" saioarekin.

Horrez gain, eta urtero bezala, 2011n ere "Manos Unidas" sarien edizio berri bat izan zen ondoko arloetan: Prentsa, Prentsa digitala, Irratia, Telebista eta Kartelak. Sari horiek Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka ezagutarazteko lanean aipamen berezia merezi duten profesionalen lana goraipatzen dute. 2011n, Madrilgo CaixaForum auditoriumean izan zen sari banaketa ekitaldia.

“Etorkizuna amestuz” erakusketa

Kanpainaren osagarri gisa, “Etorkizuna amestuz” erakusketa antolatu da. Herrialde askotako haurren errealitatea jasotzen da bertan, eta hori aldatzeko egiten den lana, itxaropenezko irtenbideak eta gauzatutako ametsak ezagutzera emanez. Erakusketan azaltzen diren argazki guztiak Manos Unidasek lagundutako proiektuen argazkiak dira.



Manos Unidas eta GMJ

Manos Unidasek parte hartu zuen Madrilén, abuztuaren 18tik 21era izandako Gazteriaren XXVI. Mundu Jardunaldian. San Joan Ebanjelariaren parrokiako aretoetan jarri zen erakundearen 50 urteko lana jasotzen zuen erakusketa; eta areto hauetan bertan bi Mahai inguru izan ziren, Hegoaldeko jendearen testigantzak entzun zirelarik.

Halaber, Manos Unidasek estand bat ipini zuen Buen Retiro parkeko Ibilgailuen pasealekuan instalatutako Bokazioren Azokan, erakundeak egiten duen lana ezagutzera ematearren.



Manos Unidasen estanda, Madrilgo Buen Retiro parkean.

Garapen-proiektuak

Manos Unidas erakundeak hainbat gaiekin loturiko proiektuak finantzatzen ditu, hala nola, nekazaritza, osasuna, hezkuntza, gizartea eta emakumeen sustapena, eta Hirugarren Munduko pertsonen askapen integrala lortzen laguntzea da horien guztien helburua. Gainera, hondamendiak gertatzen direnean, larrialditarako laguntza ere bidaltzen dugu, baita ohiz kanpoko beste kasu batzuetarako ere.

Manos Unidas erakundearen ustez, garapenak eraldaketa ugari ekarri behar ditu Iparraldean eta Hegoaldean, guztiontzako bizi-baldintza duinak lortze aldera. Herrialde behartsuetako herritarren beharretan oinarrituriko proiektuez baliatzen gara gure helburuak lortzeko, hau da, herrien garapena, hezkuntza, elikadura, etab. Hartzaileen inplikazioa ezinbesteko baldintza da ekimenean etorkizuna bermatzeko.

Proiektu batek ziklo ezberdinak ditu: Hegoaldeko bertako erakunde baten eskabidea jasotzea; dagokion azterketa eta eztabaida; azterketa fitxa egitea; proiektua onartzea edo atzera botatzea, finantzazio bidea adieraziz; eta, azkenik, Batzorde Iraunkorraren behin betiko onarpena edo atzera botatzea. Proiektua onartzen bada, ekimen hauek onuradunekin eta arduradunekin zuzenean komunikatuz garatzen dira, estatuko gizartearengandik jasotzen dituen funtsak bere jomugara iristen direla bermatuz.

Manos Unidas erakundeak emandako laguntza ez da inoiz gerrak edo alderdi politikoak babesteko erabiltzen, ezta gizakiak edo natura kalte ditzaketen ekintzak bultzatzeko ere.



proiektuen kalitatea eta ebaluazioa


Garapenerako lankidetzan, Manos Unidas erakundeak kalitatea eta eragina hobetzearen alde egiten du lan, planifikazioaren, identifikazioaren, proiektuaren zikloa hobetzearen, ebaluazioaren eta talde-lanaren bitartez.

Kalitatearen giltzarrietariko bat proiektuen jarraipen estua egitea dela irizten diogu, horrek bertako bazkide arduradunekin harreman zuzena izateko aukera ematen duelako, eta onuradunekiko gertutasuna, azken batean horiekin partekatzen ditugulako arrakastak eta eragozpenak.

Hara, 2011. urtean garapen proiektuetara zuzendutako 11 kanpo ebaluazio burutu ziren, eta hainbat barne ebaluazio eta jarraipen bidaia. Partehartzailea da ebaluaziorako ezarritako metodologia, eta taldeekin eta onuradunekin egiten da lan, uste baita emaitzen analisisen prozesua tresna egokia dela lana hobetzeko, eskarmentutik ikasteko, eta esleitutako baliabideetatik eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Manos Unidasen garapenerako proiektuen helburua da onuradunei arazoak identifikatzeko eta konponbideak bilatzeko aukera emango dieten prozesuak erraztea, proiektuak gauzatzeko orduan eragile garrantzitsuak izango direlako. Era honetan, hezkuntza, osasuna, elikagaien ekoizpena edo diru-sarreraren sorrera bezalako terminoetan lortutako emaitza kuantifikagarriak baino haratago, pertsonak gaitzea eta euren autoestimua hobetzea lortzen da urratsez urrats, hori delako benetako giza garapen osoaren eragilea, Benedikto XVI.ak "Caritas in veritate" entziklikan dioen bezala.

2011: proiektuak



**NEKAZARITZA
SUSTATZEKO**

98 proiektu

Zenbatekoa: 8.527.360,98 euro

Onuradunak: 252.439 zuzenekoak



**HEZKUNTZA
SUSTATZEKO**

207 proiektu

Zenbatekoa: 9.750.768,44 euro

Onuradunak: 110.298 zuzenekoak



**OSASUNA
SUSTATZEKO**

112 proiektu

Zenbatekoa: 6.745.678,27 euro

Onuradunak: 1.621.378 zuzenekoak



Zenbatekoa:

Onuradunak:

munduan

2011. urtean,
Manos Unidas erakundeak
605 proiektu onartu ditu guztira,
58 herrialdetan,
35.609.415,44 euro erabiliz.

amerika

1. **Bolivia**, 14 proiektu
2. **Brasil**, 14 proiektu
3. **Dominikar Errepublika**, 6 proiektu
4. **Ekuador**, 4 proiektu
5. **El Salvador**, 13 proiektu
6. **Guatemala**, 17 proiektu
7. **Haiti**, 13 proiektu
8. **Honduras**, 7 proiektu
9. **Kolonia**, 11 proiektu
10. **Mexiko**, 5 proiektu
11. **Nikaragua**, 10 proiektu
12. **Panama**, 5 proiektu
13. **Paraguay**, 5 proiektu
14. **Peru**, 24 proiektu

Onartutako proiektuak guztira: **148**.
Balioa: **12.156.087,99 euro**.

afrika

1. **Angola**, 8 proiektu
2. **Algeria**, 1 proiektu
3. **Benin**, 9 proiektu
4. **Burkina Faso**, 12 proiektu
5. **Burundi**, 6 proiektu
6. **Boli Kosta**, 5 proiektu
7. **Egipto**, 2 proiektu
8. **Eritrea**, 1 proiektu
9. **Etiopia**, 16 proiektu
10. **Ghana**, 9 proiektu
11. **Guinea Bisau**, 1 proiektu
12. **Hego Sudan**, 2 proiektu
13. **Kamerun**, 7 proiektu
14. **Kenia**, 15 proiektu
15. **Kongoko Errepublika**, 1 proiektu
16. **Kongoko Errepublika Dem.**, 13 proiektu
17. **Madagaskar**, 11 proiektu
18. **Malawi**, 10 proiektu
19. **Mali**, 5 proiektu
20. **Maroko**, 3 proiektu
21. **Mauritania**, 8 proiektu
22. **Mozambique**, 17 proiektu
23. **Niger**, 2 proiektu
24. **Nigeria**, 5 proiektu
25. **Ruanda**, 4 proiektu
26. **Senegal**, 10 proiektu
27. **Sierra Leona**, 6 proiektu
28. **Somalia**, 7 proiektu
29. **Sudan**, 1 proiektu
30. **Tanzania**, 8 proiektu
31. **Togo**, 7 proiektu
32. **Uganda**, 15 proiektu
33. **Zambia**, 8 proiektu
34. **Zimbabwe**, 5 proiektu

Onartutako proiektuak guztira: **240**.
Balioa: **12.060.768,12 euro**.


asia eta ozeania

1. **Bangladesh**, 5 proiektu
2. **Ekialdeko Timor**, 1 proiektu
3. **Filipinak**, 2 proiektu
4. **India**, 194 proiektu
5. **Israel**, 2 proiektu
6. **Kambodia**, 6 proiektu
7. **Papua**, 1 proiektu
8. **Sri Lanka**, 2 proiektu
9. **Tailandia**, 2 proiektu
10. **Vietnam**, 2 proiektu

Onartutako proiektuak guztira: **217**.
Balioa: **11.392.559,33 euro**.

Gainera, Manos Unidas erakundeak aurreko urteetako proiektuak diruz langutzen jarraitzen du. Esaterako, 2011n 908 proiektu lagundu ditu guztira.

proiektuen banaketa kontinenteen arabera



EMAKUMEA SUSTATZEKO
70 proiektu

Balioa: 4.002.128,58 euro

Onuradunak: 311.245 zuzenekoak



GIZARTEA SUSTATZEKO
118 proiektu

Zenbatekoa: 6.583.479,17 euro

Onuradunak: 721.750 zuzenekoak

Iarrialdiak



Krisia Afrikako Adarrean

Afrikako Adarreko krisiaren aurreran, estatuan bizitzen ari garen finantza krisia kontuan hartuta, izan dugun elkartasun eta eskuzabaltasun itzela azpimarratu nahi dugu. Lurralde hartatik iristen zitzaizkigun testigantzak bihotz-urragarriak izan dira, emakume askok euren seme-alaba guztiekin etxeak eta auzoak utzi, eta, inolako bitartekorik gabe, basamortu gunek zeharkatu behar izan dituztelako, era guztietako zorigaitzak jasateko arriskuan. Gure laguntzari esker, horietariko askok irribarrea berreskuratu ahal izan dute berriro, jasotako ekarpenei esker (2.044.513,90 euro) 20 proiektu finantzatzeko gai izan garelako, 600.000 inguru laguni lagunduz, horietariko gehienak emakumeak eta haurrak izan direlarik.

Reuters/Jorge Silva

5 lan-sektore



Emakumeen sustapena: proiektu guztien lehentasuna

Emakumeen sustapena atergabeko garrantzia duen lana da. Esperientziak eta errealitateak erakutsi digutenez, emakumeen alde eginiko lanak—familiarentzako diru-sarreraren sortzaile gisa, seme-alaben hezitzaile gisa- emaitza ezin hobek ematen ditu; izan ere, lan horrek hainbat onura ekartzen ditu, ez familia-eremu mugatuan soilik, baita komunitatean eta, ondorioz, herri guztian ere.

Nekazaritza

Abeltzaintza eta Nekazaritza, oinarrizko eta lehen sektoreko langintzak, munduko biztanle-kopuru handi baten bizibide dira. Horren garrantzitsuak izanagatik ere, merkataritzako neurri bidegabekoez eta garapenerako baliabide ezak mehatxupean dituzte sektore hauek, eta familia asko hirietara emigratzera bultzatzen dituzte aukera berrien bila. Manos Unidas erakundeak sektore honetan bultzatutako proiektuek nekazaritza eta abeltzaintza sustatzea dute helburu, ekimen ezberdinen bitartez laborarien bizi-maila hobetuz.



Hezkuntza

Garapenerako lehenetsun handien artean aurkitzen da hezkuntza. Honen sustapenaren menpe dago, neurri handi batean, justizian eta berdintasunean oinarritutako gizarteak osatzea eta pertsona guztien duintasuna eta garapena errespetatzea.

Eskolak eta lanbide-heziketarako ikastegiak sortu eta hornitzea, haurrak eta helduak prestatu eta trebatzea, alfabetizazio-maila eta helduen ikasketak areagotzeko ikastaroak antolatzea, etab. dira Manos Unidasek arlo honetan bultzatzen dituen helburuetariko batzuk.



Gizarte-sustapena

Pertsonak ez dira erabat osatzen euren gizarte-izaera garatzen ez badute; hau da, inguruko pertsonekin harremanetan jarri ezean, pertsona ez da bere osotasunean garatuko. Izan ere, besteen bidez bizitza bideratzen duten funtsezko balioak barneratzen ditugu. Hori horrela, arlo honetako proiektuen helburu nagusia komunitate-erantzukizunaren zentzuaz ohartaraztea da, baita komunitateen bizi-kalitatea hobetzea ere. Horretarako, hainbat ekintza bultzatzen dira: esaterako, azpiegituren eraikuntza, aitzindarien prestakuntza, instalazio sozialen egokitzapena edo Giza Eskubideen sustapenera zuzendutakoak.



Osasuna

Osasunik gabe ezinezkoa da garapen-helburu oinarrizkoenak lortzea. Osasunik gabe izugarri zailtzen da edozein aurrerakuntza-prozesu. Arlo horrekin lotutako proiektuen bidez, Manos Unidas erakundeak gaixotasunak saihestu nahi ditu kontsultategiak eta ospitaleak sortuz, hornituz eta hobetuz. Helburu hori lortzeko, txertatze kanpainak eta medikuntza prebentiboa sustatu nahi ditugu, baita osasun-sustatzaileak prestatu eta beste zenbait zerbitzu antolatu ere.



zergatik egiten dugu?



“Eman zuek jaten” (Mk 6,37)

Bai, gogorra, latza eta negargarria da Europako Batasuneko herrialdeek, eta Espainiak bereziki, jasaten ari diren krisi ekonomikoa, eta negargarria, gogorra eta latza Hirugarren Munduko herrialde askotako egoera, non pertsona asko eta asko gosez hiltzen diren egunero. Herrialde hauek jasaten ari diren krisia ez da azken urteetako; eurek beti, atergabe jasaten dute krisi, jaiotzen direnetik hiltzen diren arte. Ez dute janaririk, ez dute sendagairik, ez dute aurrera ateratzeko behar-beharrezkoak diren baliabiderik.

Manos Unidasek itxaropen pixka bat jarri nahi du sufrimendua besterik ez ezagutzen ez duen mundu honetan. Duela 53 urtez geroztik, erakunde

honek garapen proiektuak finantzatzen ditu munduko herrialderik behartsuenetan. Zuhaitzek hazteko eta fruitua eman ahal izateko ura izan dezaten, tantaka-tantaka ureztatzeko ipintzen diren instalazio horiek bezalakoa da. Manos Unidasek, pertsonen eta erakundeen eskuzabaltasunari esker, itxaropenezko ur tanta hori eramaten du garapen bidean dauden herrialdeetara nekazaritza, osasuna, hezkuntza, emakumearen sustapena etab.en bitartez, era horretan aterako direlako zorritzarrez pairatzen duten pobrezia horretatik eta iritsiko euren garapenaren protagonistak izatera.

Manos Unidasek bere lanaren bitartez, Jesus, Jainko Semearen gonbita betetzen ari da, ogi eta



arrain biderketaren kontakizunean esan zuen bezala: *“Eman zuek jaten”*. Guri dagokigu, haiek baino baliabide gehiago izanik, garena eta daukaguna partekatzea, dohain oparo horrek, Jainkoaren graziarengatik, botere hagitz biderkatzailea duelako.

Manos Unidas ez da Hirugarren Munduan lankidetzan dihardueneko gizatalde ezberdinen arazo zehatzak konpontzeko laguntza ematera bakarrik mugatzen; aitzitik, pobreziaren errealitateari buruz herritarrak mentalizatzen edo jabetu daitezten saiatzen da, eta balioetan hezteko lana egiten du, gure bizitzeko erak hobera aldatzeko gonbita luzatuz, neurritasun eta gardentasun mezuak zabalduz, boluntariora eta gure senideen zerbitzurako funtsezko jarrerak bultzatuz, bakearen kultura eta nazioarteko lankidetzaren sustatuz. Erakunde hau mugiarazten duen garapen eredia

ez da ekonomikoa edo teknikoa bakarrik, gizatiarra, erabatekoa eta iraunkorra baizik. Nik esango nuke bihotza eta anima dituen erakundea dela, eta hau ere garrantzitsua da gizakiekin lan egiten denean, garapen kasuan gertatzen den bezala.

Eskerrik asko, Manos Unidas, 2011. urtearen joanean eginiko lanarengatik, zeina Memoria honetan aurkezten den! Eskerrik asko, Erakunde honetako bazkide, laguntzaile eta langile guztioi eginiko lan isil eta oparoarengatik. Jainkoak be-deinka zaitzatela, eta egin behar genuena egin dugula jakiteak, hau da, behartsuenekin partekatzeak ematen duen bakean bizi zaitzetzela!

Bihotz-bihotzez,

+ **Juan José Omella Omella**
Kalahorra, eta La Calzada-Logroñoeko Gotzaina
eta Manos Unidas erakundeko Kontsiliarioa



gure kontuak



- Manos Unidas erakundearen diru-sarrerak 51.856.656 eurokoak izan ziren 2011. urtean.
- Gure diru-sarreren % 82 iturri pribatuetatik dator. Horien % 18 baino ez dator sektore publikotik.
- Jasotako guztizkoaren % 90,6 Manos Unidas erakundearen helburuetara bideratzen da (% 85,1 Garapen proiektuetara, eta % 5,5 Sentsibilizazio kanpainetara).
- Bazkideak dira, diru-sarreren % 35,2rekin, Manos Unidas erakundearen muina eta euskarria.

2011ko emaitza ekonomikoak

SARRERAK

	Euroak	Portzentajeak
Bazkideak eta dohaintzagileak (1)	17.875.233.-	% 35,2
Parrokiak eta entitate erlijiosoak	12.967.982.-	% 25,4
Ikastetxeak	1.555.366.-	% 3,1
Larrialdiak	2.118.931.-	% 4,2
Herentziak eta legatuak	4.095.987.-	% 8,1
Sentsibilizazio-jarduerak	1.947.601.-	% 3,8
Laguntza pribatuak	236.900.-	% 0,5
Finantza-sarrerak	681.946.-	% 1,3
Bestelako diru sarrera pribatuak	183.822.-	% 0,4
SEKTORE PRIBATUA GUZTIRA	41.663.769.-	% 82,0
Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarra	4.229.303.-	% 8,3
Tokiko Administrazioa eta Administrazio autonomikoa	4.914.872.-	% 9,7
SEKTORE PUBLIKOA GUZTIRA	9.144.175.-	% 18,0
BILDUTAKO SARRERAK	50.807.944.-	% 100
BESTELAKO SARRERAK (2)	1.048.712.-	
SARRERAK GUZTIRA, 2011. URTEAN	51.856.656.-	

GASTUAK

	Euroak	Portzentajeak
Sentsibilizazioa	2.633.565.-	% 5,5
Garapen-proiektuak	41.089.780.-	% 85,1
- Proiektuak (3)	39.370.054.-	% 81,6
- Proiektuen kudeaketa	1.719.726.-	% 3,5
MANOS UNIDAS ERAKUNDEAREN HELBURUA GUZTIRA	43.723.346.-	% 90,6
SUSTAPENA ETA BALIABIDEAK ESKURATZEA	857.245.-	% 1,8
ADMINISTRAZIOA ETA EGITUURA	3.680.354.-	% 7,6
2011 URTEA, GUZTIRA	48.260.944.-	% 100
2011ko SUPERABITA*	3.595.711.-	

(1) Dohaintza partikularrak, elkarte eta fundazioak, enpresak eta anonimoak hartzen ditu.


(2) Honakoak hartzen ditu barne: ez ohiko emaitzak, aurreko urteetan emandako laguntzen itzulketa/deuseztapena, aldaketa-diferentzia positiboak eta aplikatutako probisioak.

(3) Kopuru hau onarturiko 605 proiektuei dagokie, gehi Etiopia eta Senegaleko Itunen lau urtekoetatik hirugarrena.

* 2011. urtean izandako superabita, 1.115.917 euro, Afrikako Adarreko proiektuetara eta 2012. urtean proiektu berriak onartzeko xedatuko da.




Diru-sarrereren jatorria



* Dirulaguntza pribatuak, Diru-sarrera finantzarioak eta beste diru-sarrera pribatu batzuk.

Gastuak



* Manos Unidas erakundearen helburuak: Garapen proiektuak, Proiektuen kudeaketa eta Sentsibilizazioa

Gastuen banaketa aplikatzeko irizpideak

Gastuak, 20 orrialdean azaltzen diren bezala, estatutuetan ezarritako **helburuak betetzera** bideratutakoen eta **funtzionamenduko gastuen** artean sailkatzen dira

● ERAKUDEAREN HELBURUETARAKO GASTUAK:

- **Sentsibilizazioa** Sail honek Garapenerako Hezkuntza Arloaren gastuak jasotzen ditu, ea hor sartzen dira hezkuntza-materialak prestatzeko, kanpainak koordinatzeko, foroak eta mintegiak, etab. antolatzeko soilik kontrataturiko langileen gastuak.
- **Proiektuak.** Urteko ekitaldian onarturiko proiektuen guztizko zebatekoa jasotzen du.
- **Proiektuen kudeaketa.** Proiektuak identifikatzeko eta gainbegiratzeko eginiko bidaien gastuak, Proiektuen Arloko langileen gastuak, eta kontu-ikuskaritzek eta finantzaturiko proiektuen ebaluazioek eragindako gastuak.

● FUNTZIONAMENDU GASTUAK:

- **Baliabideak sustatzea eta biltzea.** Diru-laguntzak biltzera eta erakundearen jardura iragartzera bideraturiko Komunikazio Arloko gastuak jasotzen ditu.
- **Administrazio eta egitura gastuak.** Erakundearen kudeaketan eta administrazioan sorturiko gastuak dira, hots, Presidentetza, Giza Baliabideak, Informatika, Idazkaritza Nagusia, Kalitate Kabinetea, Ekonomia arloa, Bazkideen kudeaketa, Ordezkaritzen kudeaketa eta Kanpo harremanak.

Gardentasuna

Manos Unidas, bere funtsen hautematean, kudeaketan eta administrazioan gardentasunez irmoki konprometitutako erakundea da. Izatez, erakunde bezala, gardentasuna da gure balioetariko bat, eta burutzen ditugun jardueri buruz gizartearen aurrean erantzuteko apustuaren isla garbia da. **Espaudit Gabinete de Auditoría S.A.** enpresak auditatu ditu gure urteko kontuak. Gainera, Manos Unidas erakundeak **Fundación Lealtadek** ezarritako gardentasuna eta jardun zintzoaren printzipioak betetzen ditu, eta **Garapenerako Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarrak (AECID)** finantzatzeko aukera izan dezan kalifikatua dago.

Kanpoko auditoretza

Gure kontuak ESPAUDIT GABINETE DE AUDITORÍA S.A. enpresak auditatu ditu, aldeko txostena eginez. Txosten hori paperean nahi izanez gero, gure ordezkarietzan eska daiteke. Web orrian ere oso-osorik aurki daiteke: www.manosunidas.org




Fundación Lealtad

Manos Unidas erakundeak FUNDACIÓN LEALTAD-EK GKEentzat ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu: www.fundacionlealtad.org



GNEAE-AECID

Bestalde, Garapenerako Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarrak (GNEAE-AECID) lankidetzarako itunen finantzaketa-ildoan aukera izateko kalifikaturiko erakundetzat hartu du.



Herrialderik behartsuenen alde egiten dugun lana ezinezkoa litzateke Manos Unidasen adiskide eta laguntzailerik gabe. Asko dira lagundu diguten boluntarioak, langileak, bazkideak, laguntza ematen duten norbanakoak eta talde edo elkarteak (ikastetxeak, parrokiak...), enpresak, bankuak, elkarteak eta fundazioak. Batzuek dirua emanaz, besteak garapen-proiektuak finantzatzuz, ekimen jakinetan lagunduz edo mota askotako zerbitzuak eskainiz.

Guztiei, mila esker!

Ondoren, hala ere, horietariko batzuk aipatuko ditugu, leku-faltagatik denak aipatzea ezinezkoa baita. Garapen-proiektuetan finantza-kide ditugunak ez dira hemen aipatuko, Txosten honekin batera argitaratzen den "Proiektuen Liburua"n agertuko baitira.

Enpresak

- ▶ AARBEI CARTERA E INVERSIONES S.L.
- ▶ ACC. CANARIAS
- ▶ ADVANTIA COMUNICACIÓN GRÁFICA
- ▶ AGUIRRE ZAMORA ASOC S.L.
- ▶ ALMADRABA CABO DE PLATA, S.A.
- ▶ APEN CENTRE INF. S.L.
- ▶ ASISA
- ▶ ASOCIACION DE LA PRENSA
- ▶ ATLANT.EDICIONES MULTIMEDIA
- ▶ ATOR MOTOR S.A.
- ▶ AUDIOVISUALES AG, S.L.
- ▶ AUTOBUSES LA VILLAVESA S.A.
- ▶ AXL CONSULTORIA MERCANTIL
- ▶ BANC SABADELL
- ▶ BANCO SANTANDER
- ▶ BARRACUDA (HOTELES)
- ▶ BELABARCE S.L.
- ▶ BON PREU S.A.
- ▶ BUSINESS MORALES S.L.
- ▶ CAJA AHORROS DEL MEDITERRANEO
- ▶ CAJA RURAL DE SAN ISIDRO
- ▶ CAN XIOL S.L.
- ▶ CARGO EMPALME S.L.
- ▶ CARTONAJES SANTORROMAN. S.A.
- ▶ CENTRE COMERCIAL BARICENTRO
- ▶ CERAMICA UTZUBAR, S.A.
- ▶ CERRO CANELA S.L.
- ▶ CLICKART
- ▶ CLINICAS DOCTOR JUAN CABRERA
- ▶ CODIGRAN S.L.
- ▶ ACC. CANARIASCOMERC. e IND. VALENCIANAS, S.L.
- ▶ CONFEDERACION ESPAÑOLA DE CAJAS DE AHORROS (CECA)
- ▶ CONSERVAS PEDRO LUIS, S.L.
- ▶ COOP. DEL CAMPO SAN ISIDRO
- ▶ CRE INGENIEROS S.L.
- ▶ DESGUACE PARIS S.L.
- ▶ DEVON HOLDING S.L.
- ▶ DINOPOLIS
- ▶ DKV SEGUROS
- ▶ DOMINGO ALONSO S.L.
- ▶ ECOINTEGRAL INGENIERIA S.L.
- ▶ ECOSOL
- ▶ EL CORTE INGLES
- ▶ ELECTRICAS PITARCH S.A.
- ▶ EMPRESA PLANA S.A.
- ▶ EXPLOTACIONES AGRICOLAS VIRGEN DE FATIMA S.L.
- ▶ FIDELO VILLARREAL, S.L.
- ▶ FINIKAS CONSULTING S.L.
- ▶ FOMENTO DE DESARROLLOS COMERCIALES
- ▶ FULGENCIO SPA (CARCHUNA)
- ▶ GESTINMÉDICA, S.L.
- ▶ GMV EUROLIFT S.A.

- ▶ GOMEZ LIÑAN HERMANOS, S.L.
- ▶ GRUPO DEB
- ▶ GUADALMIN GOL, S.A.
- ▶ HABANA 200 S.L.
- ▶ HERMANOS CLEMENTE PEREZ S.L.
- ▶ HNOS. ORTIZ REINA S.C. (ON LINE)
- ▶ IMPRENTA RAPIDA LLORENS S.L.
- ▶ INBIGA-64, S.L.
- ▶ INFORMATICA LANZAROTE, S.L.
- ▶ INPROQUISA, S.A.
- ▶ INTERAPOTHEK S.A.
- ▶ IRASME S.L.
- ▶ IRUÑA OCASION, S.L.
- ▶ INPROQUISA, S.A.
- ▶ INTERAPOTHEK S.A.
- ▶ IRASME S.L.
- ▶ IRUÑA OCASION, S.L.
- ▶ JARDINES DEL BARRIO S.L.
- ▶ KARBEST, S.L.
- ▶ KH LLOREDA S.A. (Concert Ars Tunae)
- ▶ LA CAIXA
- ▶ LA CERES INDUSTRIAL, S.L.
- ▶ LAPOINT EMPRESAS ESPAÑA S.L.
- ▶ LIBECROM S.A.
- ▶ LLOBET DE FORTUNY SA
- ▶ M.R. ASESORES Y CONSULTORES FISCALES, S.L.P.
- ▶ MALVASIA DEL SOL, S.L.
- ▶ MANTECADOS GAMITO HERMANOS
- ▶ MANUFACTURAS RUIZ S.A.
- ▶ MCZZ DOLINA ASOCIADOS SL
- ▶ METRO 7 S.L.
- ▶ NECOTIA S. L.
- ▶ NETOBRIL, S.A.
- ▶ NUCLINOR, S.A.
- ▶ OMAC
- ▶ OPTIM S.A.
- ▶ ORONA S.COOP.
- ▶ OSORMEGO S.L.
- ▶ PANADERIAS NAVARRAS S.A.
- ▶ PEÑOLA Y MENDOZA S.L.
- ▶ PROYECTOS TAJINASTE S.L. (TENERIFE)
- ▶ PUMARDONGO S.A.
- ▶ PURIFICACION GARCIA Y CHOCRON
- ▶ JOYEROS S.L.
- ▶ RECREATIVOS SAETABIS, S.A.
- ▶ ROSADULCE S.L.
- ▶ RURALCAJA
- ▶ SAICARJE S.L.
- ▶ SANTANDER GESTION DE ACTIVOS S.A.
- ▶ SARASKETA XXI S.L.
- ▶ TAVERNES VALLDIGNA
- ▶ THE WHITE BOX S.L.
- ▶ TUBIO Y RIOS, S.L.
- ▶ UNIVERSAL DE ALIMENTACION S.A.
- ▶ URBANIZADORA VILLAMARTIN S.A.
- ▶ URQUIJO GESTION S.A. SGIIF. SU
- ▶ VALLES PREU S.A.
- ▶ VODAFONE ESPAÑA S.A.
- ▶ ZURICH INSURANCE PLC

Bestelako erakunde, elkarte eta fundazioak

- ▶ AGRUPACION AMIGOS CAMINO DE SANTIAGO (AVILA)
- ▶ AMAS DE CASA ALAR DEL REY (PALENCIA)
- ▶ AMAS DE CASA HERRERA DEL PISUERGA
- ▶ APA PILAR BAYONA
- ▶ ARANJUEZ CLINICA ESPECIALIDADES DENTALES S.L.
- ▶ ASOC. JUVENIL BRIJOVEN
- ▶ ASOC. AMAS DE CASA DE BESANA
- ▶ ASOC. CUIN (CAMARGO)
- ▶ ASOC. COMUNIDAD Y SOLIDARIDAD
- ▶ ASOC. DE VIUDAS MARIA AUXILIADORA (CALATAYUD)
- ▶ ASOC. HOMBRES Y MUJERES
- ▶ ASOC. INST. DE SAN ANTONIO (VILLANUEVA DEL ARISCAL-SEVILLA)
- ▶ ASOC. JUV. VIVA JOVENES PRO VIDA
- ▶ ASSOCIATION EUROP-TIERS MONDE
- ▶ CARITAS DIOCESANA ARGAMASILLA DE ALBA. (C. REAL)
- ▶ CARITAS DIOCESANA (MÁLAGA)
- ▶ CARITAS DIOCESANA VALDEPEÑAS
- ▶ CARITAS DIOCESANA TORRE DEL MAR (MALAGA)
- ▶ CENTRO PIGNATELLI
- ▶ CENTROS CATOLICOS CULTURA
- ▶ CLUB LEONES (LA PALMA)
- ▶ CLUB ROTARIOS LOGROÑO
- ▶ CLUB TIEMPO LIBRE SAN LORENZO (HUESCA)
- ▶ COFRADIA DE LA VERA CRUZ (SALAMANCA)
- ▶ COFRADÍA NTRA. SRA. MERCEDES (ALCALÁ DE HENARES)
- ▶ CONGREGACION RELIGIOSAS DE LA COMPAÑIA MARIA CANGAS
- ▶ COPRODELI
- ▶ CORAL MONTEMAR
- ▶ FUNDACION ABEL MATUTES
- ▶ FUND CAJA MURCIA
- ▶ FUNDACION CANARIA IOHANNES BAPTISTA
- ▶ FUND. CANARIA NARANJO GALVAN
- ▶ FUND. CARMEN GANDARIAS
- ▶ FUND. CULTURAL BANESTO
- ▶ FUND. DAVALOS
- ▶ FUND. ENRIQUE ESTEVE BALET
- ▶ FUND. HOSPITAL DE POBRES-REQUENA
- ▶ FUND. INST. CULTURAL (Col. Domus)
- ▶ FUND. JESUS SERRA (BARCELONA)
- ▶ FUND. JOSE ANTONIO DE LERCHUNDI Y SIROTICH, DE B.P.
- ▶ FUND. JOSE MARIA IMAZ

- ▶ FUND. JUAN BONAL
- ▶ FUND. L&L BHAGWANDAS SIRWANI PALACIO ORIENTAL
- ▶ FUND. MARMOL (CAPILLA)
- ▶ FUND. MUTUA GENERAL DE SEGUROS
- ▶ FUND. NTRA. SRA. DE LA MISERICORDIA (SEGOVIA)
- ▶ FUND. PRIVADA GIRBAU
- ▶ FUND. PRIV. MIARNAU (BARCELONA)
- ▶ FUND. PROVOCANDO LA PAZ
- ▶ FUND. PURISIMA CONCEPCION (GRANADA)
- ▶ FUND. ROSE
- ▶ FUND. VICENTE VEDRUNA
- ▶ GRUPO HORIZONTES
- ▶ GRUPO JOVEN MMUU-BUJALANCE
- ▶ HDAD. SANTO CRISTO
- ▶ INST. BENEF. DEL SAGRADO CORAZON
- ▶ MUJERES ACCIÓN CATÓLICA Parroquia Carmen.
- ▶ PATRONATO SAN JOSE (ALCALA)
- ▶ RESID. DE MAYORES CAJA DUERO (SANTA MARTA)
- ▶ RESIDENCIA SANTA OROSIA (JACA)

Hitzarmenak

- ▶ BANCAJA
- ▶ BANSABADELL VIDA
- ▶ COPE
- ▶ CORREO
- ▶ HNOS MATEO LORENZO
- ▶ INTERNACIONAL BUSINESS
- ▶ R.A.C.C.
- ▶ UNNIM
- ▶ ZURICH SERVICIO

Babesleak

- ▶ AY. HUELMA. (F. SOLIDARIDAD)
- ▶ CECA (Premios Prensa escrita y Prensa digital)
- ▶ BANCO SANTANDER (Premio Televisión)
- ▶ BANCO POPULAR (Premios Relatos y Carteles Infantiles)
- ▶ OBRA SOCIAL LA CAIXA (Concurs Narracions)
- ▶ LA CAIXA (Premio Carteles)
- ▶ DIP. CASTELLÓN (Concierto)

Komunikabideak

Manos Unidas erakundeak esker bereziak eman nahi dizkie gure mezuak eta iragarkiak dohainik argitaratzen dituzten komunikabide nazional, autonomiko eta tokikoei (egunkariak, aldizkariak, irrati eta telebistak)

Guztiei, mila esker!

Helbideak

02002 ALBACETE

Teodoro Camino, 8 / Tel. 967 21 23 15

28802 ALCALÁ DE HENARES (Madrid)

Vía Complutense, 8 bis / Tel. 91 883 35 44

03003 ALICANTE

Arquitecto Morell, 10-2.ª esc. 1.º H / Tel. 96 592 22 98

04001 ALMERÍA

Ricardos, 9 - 1.º izq. / Tel. 950 27 67 80

24700 ASTORGA (León)

Martínez Salazar, 8 - 1.º / Tel. 987 60 25 36

05001 ÁVILA

Pedro de Lagasca, 8 / Tel. 920 25 39 93

06005 BADAJOZ

Avda. Antonio Masa, 11 / Tel. 924 24 89 51

22300 BARBASTRO (Huesca)

Juan de Lanuza, 6 - bajo / Tel. 974 31 56 14

08037 BARCELONA

Pau Claris, 190, 1.º 1.ª / Tel. 93 487 78 78

48005 BILBAO

Pza. Nueva, 4, 3.º / Tel. 94 479 58 86

09005 BURGOS

Clunia, s/n. / Tel. 947 22 06 87

10003 CÁCERES

General Ezponda, 14, 1.º / Tel. 927 21 44 14

11001 CÁDIZ

Hospital de Mujeres, 26 / Tel. 956 21 49 72

12001 CASTELLÓN

San Luis, 15, entresuelo - 1.º A / Tel. 964 22 88 58

51001 CEUTA

Pza. de Africa, s/n. / Tel. 956 51 12 53

13001 CIUDAD REAL

Caballeros, 7 - 2.ª planta / Tel. 926 25 54 67

37500 CIUDAD RODRIGO (Salamanca)

Díez Taravilla, 15 / Tel. 923 48 20 35

14008 CORDOBA

Concepción, 4, 1.º B / Tel. 957 47 95 78

16002 CUENCA

Avda. Rep. Argentina, 25 / Tel. 969 22 20 22

15402 EL FERROL (La Coruña)

Magdalena, 153, 1.º dcha. / Tel. 981 30 03 18

28901 GETAFE (Madrid)

Almendo, 4, 2.º / Tel. 91 683 89 85

17002 GIRONA

S. J. Bautista La Salle, 19, 2.º 2.ª / Tel. 972 20 05 25

18009 GRANADA

Pza. Campillo, 2, 5.º G y H, 1 / Tel. 958 22 66 20

19005 GUADALAJARA

Avd. Venezuela, 9 - Colonia Sanz Vázquez
Tel. 949 21 82 20

18500 GUADIX (Granada)

Pso. Ismael González de la Serna, 1 bajo
Tel. 958 66 35 92

21003 HUELVA

Cardenal Cisneros, 11 / Tel. 959 25 33 88

22002 HUESCA

Pza. de la Catedral, 8 / Tel. 974 22 65 56

07800 IBIZA (Baleares)

Pedro Francés, 12, 2.º / Tel. 971 31 27 74

22700 JACA (Huesca)

Seminario, 8, 3.º / Tel. 974 36 22 51

23007 JAÉN

Maestro Bartolomé, 7, dupl. / Tel. 953 25 01 14

11402 JEREZ (Cádiz)

Sevilla, 53 / Tel. 956 18 01 56

15001 LA CORUÑA

Marqués de Cerralbo, 11 bajo / Tel. 981 20 56 59

35003 LAS PALMAS DE G. C.

Ángel Guerra, 26 - bajo / Tel. 928 37 13 07

24003 LEÓN

Sierra Pambley, 6 - 3.º C / Tel. 987 24 84 08

25002 LLEIDA

Blondel, 11, 2.º / Tel. 973 26 91 04

26004 LOGROÑO

Obispo Fidel García, 1 / Tel. 941 24 78 88

27001 LUGO

Cruz, 1B, 1.º / Tel. 982 25 55 67

28013 MADRID

Gran Vía, 46 - 4.º / Tel. 91 522 17 83

07701 MAHÓN (Menorca)

Carrero des Mirador de ses Monges, 1
Tel. 971 36 99 36

29015 MÁLAGA

Strachan, 6 - 3.º Izda. / Tel. 95 221 44 47

30001 MURCIA

Pza. Beato Andrés Hibernón, 1 - Ent. Izqda.

Tel. 968 21 40 29

32005 OURENSE

Pza. Obispo Cesáreo, s/n / Tel. 988 23 37 82

33003 OVIEDO

San Isidoro, 2 - bajo / Tel. 98 520 31 61

34001 PALENCIA

Gil de Fuentes, 12 - 2ª Izq. / Tel. 979 75 21 21

07001 PALMA DE MALLORCA (Baleares)

Seminario, 4 / Tel. 971 71 89 11

31006 PAMPLONA

Avda. Baja Navarra, 64, 1.º / Tel. 948 21 03 18

10600 PLASENCIA (Cáceres)

Las Veras, 3 / Tel. 927 42 17 07

36003 PONTEVEDRA

Peregrina, 50 entreplanta / Tel. 986 85 08 12

37002 SALAMANCA

Rector Lucena, 20, 5.º A / Tel. 923 26 15 47

20005 SAN SEBASTIAN

Loyola, 15, 3.º Izda / Tel. 943 42 45 10

38002 SANTA CRUZ DE TENERIFE

Pérez Galdós, 26, 3.º Dcha. / Tel. 922 24 34 42

39001 SANTANDER

Rualasal, 5, 2.º Dcha / Tel. 942 22 78 07

15705 SANTIAGO DE COMPOSTELA

Rúa del Villar, 18 apdo. 456 / Tel. 981 58 49 66

40001 SEGOVIA

Seminario, 4 - bajo / Tel. 921 46 02 71

41004 SEVILLA

Pza. Virgen de los Reyes, s/n. / Tel. 95 422 75 68

25250 SOLSONA-BELLPUIG (Lleida)

Avd. Preixana, 16 / Tel. 973 32 01 83

42002 SORIA

San Juan, 5 - 1.º / Tel. 975 23 14 90

50500 TARAZONA (Zaragoza)

San Antón, 11 - 1.º / Tel. 976 64 47 81

43001 TARRAGONA

Rambla Nova, 119. esc A, 2.º 2.ª / Tel. 977 24 40 78

44001 TERUEL

Yagüe de Salas, 18 - bajo / Tel. 978 61 18 45

45002 TOLEDO

Trinidad, 12 / Tel. 925 22 99 11

43500 TORTOSA (Tarragona)

Mercaders, 2 - bajo / Tel. 977 51 14 28

25700 URGEL (Lleida)

Pati de Palau, 1-5 / Tel. 973 35 22 30

46003 VALENCIA

Pza. Comunión de S. Esteban, 1 - bajo

Tel. 96 391 91 29

47002 VALLADOLID

Simón Aranda, 13, 1.º / Tel. 983 30 50 65

08500 VIC (Barcelona)

Ronda de Camprodón, 2 / Tel. 902 702 032 - Ext. 3140

36204 VIGO (Pontevedra)

Vázquez Varela, 54, 2.º B / Tel. 986 42 36 96

01004 VITORIA

Fueros, 6, 1.º izqda. / Tel. 945 23 11 79

49003 ZAMORA

Plaza del Seminario, 2 / Tel. 980 53 20 91

50001 ZARAGOZA

Plaza de la Seo, 6 - 2ª planta / Tel. 976 29 18 79

2012. urtean

Milurteko Garapenaren 6. Helburua lantzen dihardugu

“Gib/Hiesaren, Paludismoaren eta beste gaixotasun batzuen aurka borrokatzea”

Lagundu zuk ere, deitu 902 40 07 07 telefonora





Manos Unidas

2010eko Adiskidetasunaren
Asturiasko Printzea saria

*Eskerrak hori
ahalbidetu duten guztiei*

Manos  Unidas


SERVICIOS CENTRALES

Barquillo, 38-3º. 28004 Madrid

Telf.: 91 308 20 20 - Fax: 91 308 42 08

www.manosunidas.org - info@manosunidas.org

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE



Campaña LII

memoria
2011



Presentación	3
<u>¿Quiénes somos?</u>	4
<u>¿Qué hacemos?</u>	8
1.- Sensibilización	9
2.- Proyectos de Desarrollo	11
<u>¿Por qué lo hacemos?</u>	16
<u>Nuestras cuentas</u>	18
<u>Agradecimientos</u>	22
<u>Las Delegaciones</u>	23

Esta memoria ha sido elaborada por el Departamento de Comunicación de Manos Unidas.

Fotos: Soledad García, M^a Eugenia Díaz, Javier Cuadrado, Javier Fernández, Marta Carreño, Irene H-Sanjuán, Laura Gutiérrez y Casilda de Zulueta.



presentación



Querido lector: Tienes en tus manos la Memoria de Manos Unidas de 2011. En ella encontrarás las informaciones más destacadas sobre las actividades de sensibilización realizadas por nuestra asociación, los proyectos de desarrollo financiados en numerosos países, los ingresos y los gastos, junto con las notas que más nos caracterizan como institución.

En Manos Unidas, por quinto año consecutivo, seguimos trabajando centrados en los Objetivos de Desarrollo del Milenio. En esta ocasión, hemos recordado a la sociedad española, con la campaña **"Su mañana es hoy"**, que unos 29.000 niños menores de 5 años mueren todos los días por causas evitables, como son la malnutrición, la malaria, la tuberculosis, la neumonía, diarreas, deshidratación, falta de higiene y otras. Las organizaciones, gobiernos y ciudadanos tenemos la responsabilidad de implicarnos para mejorar la situación de estos niños. Manos Unidas se conmueve, como Jesús lo hizo, ante el sufrimiento de los más inocentes y lucha para acabar con la mortalidad infantil a causa de la pobreza y el hambre.

Pero en la lucha contra el hambre, los acontecimientos imponen su ritmo. En la primavera de 2011 tuvimos las primeras noticias sobre la hambruna en el Cuerno de África. Para los que trabajamos en Manos Unidas fue una noticia trágica. Como siempre, hemos apoyado a las personas que más lo necesitan, aunque somos conscientes de que la situación allí requiere la elaboración de un plan ambicioso, que permita la prevención antes de que se repita de nuevo la historia.

